

Euskal azentuaren inguruan

JOSÉ IGNACIO HUALDE

(University of Illinois)

Abstract

In this article some basic notions of word-prosody and, in particular, Basque word-prosody are examined. In section 1, the notions of stress, tone and pitch-accent are briefly reviewed. In section 2, there is a discussion of the work that has been done by different authors in the area of Basque prosody. It is argued that much basic descriptive work still needs to be done. Finally, in section 3, three Biscayan prosodic systems are compared with the purpose of showing that even what, at first glance, may look like rather similar systems, at a deeper level of analysis may present important differences of great theoretical significance.

O. Sarrera

Artikulu hau hiru partetan dago partituta. Lehen atalean, munduko hizkuntzetan aurkitzen diren prosodia mota nagusiak aurkezten dira laburki. Bigarren atalean, euskal azentuaren arloan beste ikertzaileek egindako lana diskutitzen da. Azkenik, hirugarren atalean, bizkaieraren eremuan erabiltzen diren zenbait azentu-sistema aztertzen dira.*

1. Sistema prosodikoak

Prosodiaren aldetik, munduko hizkuntzak bi taldetan banatzen dira: azentu hizkuntzak eta tonu hizkuntzak. Hurrengo azpiataletan, azentu, tonu, eta bien artean dagoen doinu-azentuaren ezaugarri nagusiak azaltzen dira.

1.1. Azentua

Azentu hizkuntzetan, prominentzia edo nagusitasun prosodikoa elementu garrantzitsua da. Silaba batzuk besteek baino prominentzia gehiago dute. Normalean, azentu unitate batean, unitatearen gailurra den silaba bat dago. Hau da silaba azentuduna. Azentu unitatea edo eremua hitza izan ohi da; nahiz eta hitza baino unitate handiago (adibidez, talde klitikoa) edo txikiago bat (adibidez, erroa) izan daitekeen. Askotan azentu edo prominentzia nagusia ez daukaten silaba guztiak ez dira, hala ere, guztiz azentugabeak. Hizkuntza aunitzetan, badaude bigarren mailako promi-

* Artikulu hau 1990eko irailean Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian antolatu zuen ikastaro batean emandako hitzaldi baten testua da. Eskerrak eman nahi dizkiot ikastaroaren antolatzailea zen Joseba Lakarri. Hirugarren atalean aurkezten ditudan datuak zuzentzeagatik eskerrak Joseba Lakarra (Gernikaldea), Gorka Elordieta (Lekeitio) eta Xabier Bilbaori (Getxo). Eskerrak Inma Muñoiari ere estiloa zuzentzeagatik.

nentzia daukaten silaba batzuk ere. Adibidez, gaztelaniazko *antigènerativista* hitzean, azkenurreko silabak azentu nagusia darama; azentu akutu batez markatu duguna. Baina gainerako silabak kontutan hartzen baditugu, haietako batzuk bigarren mailako prominentzia daramate; azentu grabeen bidez markatu duguna. Adibide honetaz balia gaitzke azentu sistemen beste propietate bat azaltzeko; hots, azentua esaldia- ren erritmoari estuki lotuta dagoela. Gaztelaniaz, silaba azentudunetik hasi eta azen- tu unitatearen hasieraraino, eskuinetik ezkerrera joanda, silaba guztiz azentugabeak eta bigarren mailako azentua daramatenak alternatzen dira modu erritmiko batetan (gaztelaniazko bigarren azentuaz, ikus Roca 1986, Harris agertzeke). Prominentzia izartxoen bidez adierazten badugu, honelako kontornoak aurkitzen ditugu gaztela- niaz:

(1)

				*
	*	*	*	*

antigenerativista

Izartxo bat daukaten bi silaben artean badago azenturik gabeko silaba bat. Beste- la esanda, eta metafora arrunt bat erabiliz, bi gailurren artean badago haran bat. Azentu hizkuntzetan, silaba indartsu eta ahulen arteko erritmo hau mantentzeko jo- era garbia dago. Erritmo honen bortxaketak gerta daitezke hitz batek azentua azken silaban daukanean eta hurrengo hitzak lehen silaban. Kasu honetan hizkuntza asko erabiltzen dituzte arau bereziak erritmoaren apurketak konpontzeko. Italiaraz, adibi- dez, elkarren ondoan dauden bi azentuetako lehena ezker alderantz mugitzen da (ikus Nespor eta Vogel 1986):


metá tórta → méta tórta
cittá vécchia → cítta vécchia

Honen antzera, ingelesez badaukagu *thirtéen* 'hamairu' baina *thirteen mén* 'hamairu gizon' (ikus Halle eta Vergnaud 1987: 263-276, Nespor eta Vogel 1986).

Azentua ez da propietate fisiko jakin batekin zuzenki erlazionatzen; gauza abs- traktu bat da. Silaba azentudunek badute nolabaiteko prominentzia; baina promi- nentzia hori nola gauzatzen den ez da guztiz nabaria den gauza. Hasiera batean, sila- ba azentudunek indar gehiago zeukatela pentsatzen zen; alegia, besteak baino intent- soagoak zirela. Arrazoi honengatik indarrezko edo intentsitatezko azentuaz mintzatzen da. Ingelesezt nahiko grafikoa den *stress* hitza erabiltzen da gure azentua- ren ordez zentzu honetan. Hala ere, eta deitura hauek ongi errotuta egon arren, garbi dago orain ahotsaren indarra edo intentsitatea ez dela azentuaren ezaugarritik argie- na. Ezaugarri honek ez dauka lehen pentsatzen zen bezainbateko garrantzia. Datu instrumentalek erakusten dute hizkuntzek normalean ezaugarri fisiko bat baino gehiago erabiltzen dutela silaba azentudunei prominentzia emateko. Ezaugarri hauen artean luzetasunak edo iraupenak eta oinarritzko maiztasunak (tonuak) garrantzi be- rezia daukate (ikus, adibidez, Lehiste 1970).

Normalean, silaba azentudunak besteak baino luzeagoak dira, *ceteris paribus*. Hau oso nabaria da italiara bezalako hizkuntza batean. Beste hizkuntzetan ere gauza bera gertatzen da, nahiz eta hizkuntza batzutan silaba azentudunen luzamendua bestetan bezain handia ez izan. Tonuaren aldetik ere, silaba azentudunak besteak baino pro-

minenteagoak dira. Esaldiaren melodia silaba azentudunekin lerratzen da. Tonu hizkuntzak ez direnetan (gaztelaniaz, italieraz, ingelesez, etab.), oinarrizko maiztasuna esaldi mailako fenomeno da. Hitzek ez dute berez tonu melodiarik. Melodia esaldi mailan ezartzen da. Esaldi mailako melodia hauek entonazioa deitzen dira. Entonazioak ekartzen duen tonu-melodiaren eta azentuaren artean badaude lotura garbiak. Esan bezala, esaldi-melodiaren tonuak silaba azentudunekin lerratuta agertuko dira. Aipatutako hizkuntzetan, galderak, aginduak, harridura, baieztapenak, eta abar, entonazioaren bidez adierazten dira. Esaldi mailako esanahi hauek bereizteko, melodia ezberdinak erabiltzen dira. Bereziki, esaldiaren amaieran agertzen diren tonu-kontornoak ezberdinak dira esaldi-mota ezberdinetan. Baieztapenek amaieran daukaten tonu-beherapena ez da agertzen galderetan. Orain, "esaldiaren amaiera" kontzeptua zehaztu nahi badugu, aurkituko dugu garrantzia duen puntua dela esaldiaren azken silaba azentuduna. Esaldiaren hasieran eta beste lekuetan ager daitezkeen tonu-inguruneak ere silaba azentudunekin egongo dira loturik. Hitz bakar bat ahoskatzen dugunean, hitz bateko esaldi bat daukagu eta entonazioa hitz batean kontzentratuta agertzen da; eta, bereziki silaba azentudunean. Baldintza hauetan, gaztelaniaz, eta beste hizkuntza askotan ere, baieztapen neutroa denean, entonazioak gorabehera bat egiten du silaba azentudunean; hau da, entonazioa igotzen da silaba azentudunean eta handik behera doa:

(2) 
pa tá ta

Hala da baieztapen neutro batean. Baina, melodia desberdina da galderetan, aginduetan, eta abarretan: *¡patata?*, *¡patata!* Kasu hauetan ere, tonu aldaketa nabariena silaba azentudunean agertuko da. Azentua ez dago halabeharrez ingurune jakin bati atxikia. Ingurunea esaldi motak determinatzen du; baina azentuarekin lerratzen da. Melodia aldatuz, adibidez, baieztapena galdera bihurtzeko, baina hitzaren esanahia ez da aldatzen. Gero ikusiko dugunez, egoera guztiz desberdina da tonu hizkuntzetan.

Batzutan, silaba azentudunen eta azentugabeen arteko diferentzia tonuzkoa eta kuantitatezkoa (iraupenezkoa) ez ezik, kualitatezkoa ere bada. Zenbait hizkuntzetan, azentu pean aurkitzen diren oposaketa fonologikoak murriztu egiten dira silaba azentugabeetan. Adibide on bat ekialdeko katalanak eskaintzen digu. Hizkuntza honetan badira zazpi bokal ezberdin /i, e, ε, a, o, ɔ, u/. Baina zazpi bokal hauek bakarrik silaba azentudunetan agertzen dira. Silaba azentugabeetan, hiru bokal aurkitzen ditugu bakarrik. Hiru bokal, /u/, /o/ eta /ɔ/, silaba azentugabeetan [u] bihurtzen dira. Beste hiru bokal, /e/, /ε/ eta /a/, bokal neutro, [ə], bihurtzen dira. Bakarrik /i/ ez da neutraltzen beste bokalekin. Bokal sistemaren murritze hau hurrengo adibideetan ikus daiteke:

- (3) *ull* [úl] 'begi', *ullera* [ulérə] 'betaurrekoak'
camió [kəmjó] 'kamioi', *camionet* [kəmjunét] 'kamioitxo'
cosa [kɔzə] 'gauza', *coseta* [kuzétə] 'gauzatxo'
menja [mén'zə] 'jaten du', *menjar* [mən'zá] 'jan'
terra [téřə] 'lur', *terreta* [təřétə] 'lurtxo'
pasta [pástə] 'pasta, ore', *pasteta* [pəstétə] 'pastatxo'
llibre [librə] 'liburu', *llibreta* [librétə] 'koaderno'

Beste hizkuntza erromanikoetan ere (portugesa, italiara), /ɛ/ eta /ɔ/ bakarrik silaba azentudunetan agertzen dira. Bokal hauek azentua galtzen dutenean, /e/ eta /o/ bokalekin batzen dira. Ingelesez, silaba azentugabeetan, bokal guztiak [ə] soinu neutroarekin ahoskatzeko joera dago. Adibide bat emateko, *banana* hitzean silaba azentudunak, hots, bigarrenak bakarrik bokal berezi bat du. Beste bi silabak guztiz azentugabe dira eta bokal neutroaz ahoskatzen dira: [bən'ænə].

Laburbilduz, azentua silaba batzuek duten prominentzia edo nagusitasuna da. Nagusitasun horri ezaugarri fisiko batzuk dagozkio (luzetasuna, oinarritzko frekuentziaren aldaketak, intentsitatea, bokal kualitatea), baina batez ere kontzeptu abstraktua da, silaben artean ezartzen den jerarkiaren isladapena. Silabak unitateetan biltzen dira eta unitate bakoitzak bere burua du.

1.2. Tonua

Tonu hizkuntzetan, tonua hitz mailako fenomeno da, eta ez bakarrik esaldi mailakoa, beste hizkuntzetan bezala. Hitz bakoitzak hiztegian bere tonu melodia duenez, hitz bat ezagutzeko bere tonu melodia ezagutu behar duzu. Hitzaren tonuak bere bokalak bezain garrantzitsuak dira hitza identifikatzeko. Hizkuntza tonal jakin batean, guttienez bi tonu maila egongo dira: goikoa eta behekoa. Bi mailako tonu sistema batean, hitz bisilabadunetan lau melodia desberdin aurki ditzakegu. Orain azentu akutua goiko tonua markatzeko erabiltzen badugu eta beheko tonua markarik gabe uzten badugu, dauzkagun lau aukerak hauek izango dira:


- (4) a. bi silabek goiko tonua daramate: *táta*
 b. lehenengo silaba goiko tonuan eta bigarrena beheko tonuan: *táta*
 c. lehenengo silaba beheko tonuan eta bigarrena goikoan: *tátá*
 d. bi silabek beheko tonua daramate: *tata*

Hizkuntza hipotetiko honetan lau adibide horiek lau hitz ezberdin izango lirateke. Eman dugun adibideak bi tonu maila suposatzen ditu; baina tonu hizkuntza askok bi tonu maila baino gehiago bereizten dituzte. Hiru tonu dauzkaten hizkuntzak (goikoa, behekoa eta erdikoa) oso normalak dira eta beste zenbait hizkuntzek lau tonu (edo gehiago) erabiltzen dituzte. Eta bereizketak egiteko posibilitateak handiak dira hizkuntzak tonu maila ezberdinak ez ezik, tonu ingurune ezberdinak ere erabiltzen baditu (adibidez, beheranzko ingurunea: *tá*, edo goranzkoa: *tá*). Tonala ez den azentu hizkuntza batean, alderantziz, bi silabetako hitz batean bakarrik bi aukera ditugu bereizketak prosodikoak egiteko: azentua edo lehenengo silaban edo bigarrean eror daiteke.

Tonu hizkuntza gehienak munduko hiru eskualdetan aurkitzen dira: Afrikan, Hego-Ekialdeko Asian eta Ertamerikan. Baina badira tonu hizkuntzak beste lekuetan ere.


Tonu sistemak azaltzeko, Fonologia Autosegmentala garatu da (ikus Goldsmith 1976, 1989 eta beste asko). Teoria honen postulatu bat da tonuak eta segmentuak elementu desberdinak eta bata bestetik askeak direla, egitura fonologikoetan. Tonuak segmentuei lotzeko hatsarri unibertselez gain, hizkuntza desberdinek arau desberdinak izan ditzakete tonuak egituretan sartzeko, hedatzeko eta ezabatzeke. Goiko tonua H batez irudikatzen badugu (ingelesez *high*) eta beheko tonua L batez (in-

glesez *low*), goian emandako *táta*, *tátá* eta *tâ* litezkeen adibideak honelaxe irudika ditzakegu:



Errepresentazio hauek tonu bat segmentu bat baino gehiagori lot dakiokela eta segmentu batek tonu bat baino gehiago har dezakela erakusten dute. Azken kasuan ingurune bat izango dugu.

Tonuen independentzia argi eta garbi erakusten duen fenomeno bat aipatuko dugu orain. Tonu hizkuntza askotan gertatzen da testuinguru jakin batean (adibidez, bokal talde batean) bokal bat galtzen dela, baina ez hark zeukan tonua. Suntsitutako bokalaren tonua alboko segmentoari lotuko zaio kasu honetan. Hona hemen adibide bat agwagwune-z (Nigeriako hizkuntza bat, Huffman 1987 lanetik hartuta). Hizkuntza honetan *wá ìgbógbó* 'hondartzara joan' esaldian, lehen bokala galtzen da hizkera arruntan. Bere tonua hurrengo bokalari lotzen zaio, ingurune bat sortuz: *wìgbógbó*. Prozesu hau honela errepresenta dezakegu teoria autosegmentala erabiliz:



1.3. Doinu-azentua

Tonua eta azentua ez dira bateraezinak. Agian, hizkuntza gehienak kutxa batean edo bestean sar genitzake, besterik gabe. Baina badira bien bitarteko kasuak ere eta baita tonua eta azentua batera erabiltzen dituzten hizkuntzak. Adibide on bat suediera izan liteke (ikus Gårding 1977, Bailey 1988, beste batzuen artean). Suedierak, dudarik gabe, azentua erabiltzen du. Oro har, hitz bakoitzean lehen mailako azentua silaba batek bakarrik darama. Beste aldetik, hala ere, badira bi azentu mota, ikerlariak 1. azentua eta 2. azentua deitzen dituztenak. Suedieraz, hitz jakin bat ondo ahoskatzeko ez da nahikoa azentua zein silabak daraman jakitea; hitzak 1. azentua edo 2. azentua daraman ere jakin behar duzu. Askotan aipatzen den bikote minimoa hau da: *änden* 'ahatea', 1. azentuaz eta *anden* 'gogoa, izpiritua', 2. azentuaz. Bi hitzek lehengo silaban daramate azentua, baina azentu mota ezberdina da. Bi azentu hauek modu ezberdinetan gauzatzen dira dialekto ezberdinetan, baina kasu guztietan bereizketa oinarrizko maiztasunaren bidez (tonuaren bidez) egiten da. Ikerlari batzuk proposatu dutenez, dialekto batzuetan, 1. azentuak ez dauka tonu berezirik, esaldiaren entonazioak ematen diona soilik, azentu hizkuntzetan normala den legez. 2. azentuak, aldiz, badauka ingurune jakin bat berarekin asoziatuak. Antzeko kasu bat serbo-kroatarena da (ikus, adibidez, Lehiste eta Ivic 1986, Inkelas eta Zec 1988). Hizkuntza hauek, bai azentua eta bai hitz mailako tonua erabiltzen dituztenak, doinu-azentuzko (*pitch-accent*) hizkuntzak deitzen dira komunzki.

Beste zenbait hizkuntzatan, egoera ez da hizkuntzak garbiki bai azentua eta bai tonua erabiltzen dituela, baizik eta ez dagoela garbi hizkuntzaren sistema prosodikoa nola definitu. Kasu hauetan ere doinu-azentu izena erabiltzen da. Adibide bat Tok-

yo-ko japonera da (ikus, adibidez, McCawley 1977, Haraguchi 1977, Pierrehumbert eta Beckman 1988). Ikertzaile batzuentzat, japonera batez ere azentu hizkuntza da, nahiz eta azentua hitzean zehar hedatzen den tonu melodia batez gauzatu. Beste batzuentzat, japonera batez ere tonu hizkuntza da, nahiz eta oso murriztua eta funtsean melodia batekin bakarrik. Hiru silabatako hitzak hartzen baditugu, eta partikula enklitiko bat eransten (*ga* = nominatiboa), hurrengo lau aukerak aurkitzen ditugu (beheko tonuan dauden silabak azpimarratuak daude, eta goiko tonuan daudenek goitik dute marra):

- (7) \bar{i} noti-ga ko \bar{k} o \bar{k} o-ro-ga a \bar{t} ama \bar{g} a-ga mi \bar{y} ako-ga
'bizitza' 'bihotza' 'burua' 'hiri nagusia'

Ez dago beste aukerarik (adibidez, $\bar{t}a\bar{t}a\bar{t}a\bar{g}$ a, $\bar{t}a\bar{t}a\bar{t}a\bar{g}$ a, etab., ez dira aurkitzen). Adibideek erakusten dutenez, unitate batean gehienez tonu beherapen bat gerta daiteke sistema honetan. Beherapena lehen silabaren ondoren egon daiteke, lehen adibidean bezala; edo bigarrenaren ondoren, bigarren adibidean bezala, edo hirugarrenaren atzetik hirugarrenean legez; edo beherapenik ez dagoela gerta daiteke. Buruz ikasi behar duguna beherapenaren kokagunea da. Litekeen analisi batean, esan daiteke emandako adibideak honelaxe daudela azentuaturik: *ínoti-ga*, *kokóro-ga*, *atamága*, *miyakogá*. Gero, tonu melodia berezi bat dagoela gertatzen da. Melodia berdina da kasu guztietan. Alegia, azentuaren ondoren dauden silabek beheko tonua daramate. Eta silaba azentudunak eta bere aurretik dauden silabek goiko tonua daramate, salbuespen batekin; hots, hitzaren lehenbiziko silaba, azentuduna ez bada, beheko tonuan dago. Orduan, bakarrik melodia bat dago, hiru elementuekin: (behekoa)-goikoa-(behekoa), edo (L)H(L). Hasierako beheko tonua ez da gauzatzen azentua lehen silaban dagoenean, eta azkeneko beheko tonua ez da gauzatzen azentua azken silaban dagoenean. Goiko tonua silaba azentudunari lotzen zaiola eta ezkerralderantz hedatzen dela esan dezakegu (ikus Haraguchi 1977, antzeko analisi baterako); goiko tonuaren eskuinean beheko tonu bat sartzen delarik. Irudian, %L unitatearen mugan sartzen den beheko tonu bat da (ikus Pierrehumbert 1980):

- (8)
- | | | | |
|---------|----------|---------|----------|
| ínotiga | kokóroga | atamága | miyakogá |
| | | | |
| HL | HL | HL | HL |
| | | | |
| ínotiga | kokóroga | atamága | miyakogá |
| | | | |
| (%L)HL | %L H L | %L H L | %L HL |

Hizkuntza honetan, tonu hizkuntza aberatsetan ez bezala, ez da egia edozein silabak edozein tonu izan dezakeenik, beste silabek daukaten tonua kontutan hartu gabe. Bestalderetik, hitz-unitate guztietan silaba jakin batek azentua daramala esan daiteke. Silaba honek ematen digu melodiaren lerraketa. Baina, azentu hizkuntza arruntetan ez bezala, azalean ez dago garbi azentu unitatean silaba batek bakarrik prominentzia daukanik. Silaba azentudunaren goiko tonua ezkerraldeko silabetara hedatzen denez gero, aurkitzen duguna ez da gailur bat, *plateau* bat baizik.

Honetan hemen luzatu bagara, gero euskalki batzuek antzeko fenomenoak erakusten dituztela ikusiko dugulako izan da.

1.4. Laburpena

Atal honetan bi sistema prosodiko nagusiak, alegia, azentua eta tonua definitu ditugu, haien ezaugarri nagusiak emanez. Gero, *tertius quid* bat dagoela aipatu dugu: taldekatze bitar honetan nekez sartzan diren hizkuntzak, tonuaren eta azentuaren elementuak neurri batean edo bestean erabiltzen dituztenak.

2. Euskal azentuak

Garai batean euskaraz azentu mota bat bakarrik zegoela pentsatzen zen; edo, behintzat, azentu mota nagusi eta orokor bat. Nahiko zabaldurik zegoen, halaber, euskaraz azenturik ez zegoelako ideia. Jarrera guztiz oker hauen ondorioa eztabaida asko eta aurrerapen gutti izan zen.

Espainiako gerlaren aurreko urteetan, euskal azentu sistema batzuen deskribapen baliagarriak egin ziren. Baina momentuaren joera toki jakin bateko azentu sistema euskal azentu bakartzat edo orokortzat hartzea zen eta horrek ikertzaileen artean elkarrekiko mesfidantza ekarri zuen. Autore desberdinek gauza guztiz desberdinak esan zituzten euskal azentuari buruz. Gorren arteko elkarriketa honetan oso gutti aurreratu zen. Azkueren euskal azentuaren deskribapena daukat buruan. Azkuek eskaintzen digun deskribapena nahiko egokia da Lekeitioko hizkerarako. Oso deskribapen fina da benetan, euskal linguistikaren orduko garapena kontutan hartzen badugu. Egiten dituen obserbazio batzuk guztiz zorrotzak eta orijinalak dira. Horieta-riko hiru aipa ditzakegu hemen:

1/ Hitz monotono eta ditonoen arteko bereizketa. Hitz ditonoetan azken silabak beheko tonua darama. Hitz monotonoetan amaierako beherapen hau ez da gertatzen:

En dialecto bizkaino, por lo general, y por lo menos en algunas zonas del guipuzkoano, el acento tónico, tal como suena a mis oídos, y a los de no pocas personas consultadas, consiste en lo siguiente: en que unos vocablos son monótonos y tienen tantos acentos de intensidad como sílabas; otros son dítonos y tienen también tantos acentos de intensidad como sílabas, menos la última que cae a la atonía. (1931: 284)

2/ Atzizkiak bi multzotan sailkatzea: badira atzizki tonikoak eta atonoak:

[D]e los sufijos de nuestra lengua unos son átonos, tónicos los demás. (1969 [1925]: 24)

Adibidez, genitibo singularra tonikoa da eta genitibo plurala atonoa: *gizon onen burua* 'la cabeza de este hombre', *gizon onen buruak* 'las cabezas de estos hombres' (1969 [1925]:25). Adlatiboa tonikoa da, *etxera*, eta ablatiboa atonoa da, *etxetik* (1969 [1925]:24).

3/ Hitzaren azken silaba bakarrik izan daiteke atonoa. Ondorioz, morfema atonoa azken silaban ez badago, bere propietate prosodikoa, hots, atonotasuna (beheko tonua), eskuinalderantz mugituko da, azken silabara. Atonotasuna morfema baten propietatea izan eta beste morfema batean ager daiteke:

[S]ucedec con todos los elementos de suyo átonos que ceden su atonía al elemento que se les agrega, quedando ellos en el tono de las sílabas precedentes. (1931: 290)

[L]a atonía corre de la sílaba (de suyo átona) hasta el final del vocablo. (1932: 4)

Hori gertatzen da, adibidez erroa ditonoa denean:

[S]ufijos tónicos, como los declinativos en y ra, al unirse a vocablos dítonos como Markòs y Bilbò, reciben ellos mismos la atonía de kos y bo; pues en vez de Markòsen etxean y Bilbòra etorri decimos Markosèn etxean y Bilborà etorri. (1932: 12)

Aipatu obserbaziook zeharo zorrotzak eta zehatzak dira Lekeitioko euskalkirako. Tamalez, hala ere, eta hemen dago koska, Azkuek ez digu inon esaten deskribatzen duena Lekeitioko azentu sistema denik. Alderantziz, euskal azentu sistema orokorra, edo, behintzat, orokorrena dela esaten digu. "Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos" artikuluan (Azkue 1931-1932) deskribitzen duen azentu sistema Bizkai-Gipuzkoetako dela esaten du guttienez, nahiz eta gero ekialdeko euskalkietako hitzak ere sartzen dituen adibideetan ("el sufijo modal *sa* de dialectos orientales es tónico en el único ejemplo que interviene: *ontsa* o *huntsa* bien y átono ... en vocablos cono *ohointsà* ladrona, *artzaintsà* pastora..." [1932: 289]). *Morfología vasca* liburuan hori ere ez du esaten. Atzizki toniko eta atonoen arteko bereizkuntza egiten duenean "gure hizkuntzaz" hitz egiten du eta ez du euskalkirik aipatzen ("de los sufijos de nuestra lengua unos son átonos, tónicos los demás", goian ere aipatua). Eta orrialde berean deklinabidearen atzizki atonoen adibideak ematen dituen *gureki* la sartzen du. Baina, euskalki gehienak ez dira Lekeitiokoa bezala azentuapenaren arloan. Orduan, ez zaigu harrigarriegi egiten beste euskalariak dena Azkueren asmakuntza hutsa zela pentsatu zutelá jakitean. Azken finean, beste gauzetan Azkue nahiko trebea zen asmaketan aritzeko. Hori dela eta, Azkueren lan bikainak oso eragin gutti izan zuen euskal azentologiaren arloan. Altubek (1934) Azkueren azentuari buruzko lan osoa baliogabeko asmakuntzat hartu zuen. Egoera honetan, haien atzetik etorri ziren euskalariak oinarririk gabe gelditu ziren.

Azkue Euskal Herrian zehar ibili zen, datuak biltzen; eta, noski, konturatu zen gainerako lekuetako azentua nahiko bestelakoa zela. Hori ez zitzaion batera gustatu:

Aunque con pena, hay que confesar que el acento vasco varía mucho entre sus dialectos. En dialecto suletino y en la variedad altonabarra de Bortzerrieta (Cinco Villas: Bera, Etxalar, Lesaka, Aranatz e Igantzi) tiene la misma intensidad que en español, con la diferencia que los suletinos cargan su extraño acento en la penúltima sílaba por lo general, mientras que los nabarros de la citada comarca tienen lo mismo que en castellano, vocablos agudos, graves y esdrújulos. [1931: 283]

Gaur badakigu Lekeitiotik oso urrun joan gabe, Gernikaldean, esate baterako, aipatu hirugarren oharra, alegia, atonotasunaren eskuinaldeko mugimendua, ez dela betetzen (baina bai beste bi puntuak). Oraindik herriz herriko ikerketa bat egiteke

badago ere, dakigunak Lekeitioko sistema geografikoki nahiko mugatuta dagoela erakusten digu. Azkue Bizkaian bertan ere horrelako diferentziak aurkitzen zirela konturatu zen. Hala ere, ez zeukan inolako dudarik bere herrian erabiltzen zen sistema jatorrena zela. Ez bakarrik jatorrena, euskal azentu sistema antonomasiaz, sistema orokorra, *la tonalidad general* izan behar zuen:

Creo (y espero hacer pruebas de ello para convencerme) que en la región de Elorrio y Berriz se oyen esos Markösen y Bilbõra, pero *la tonalidad general que aquí se analiza* reserva siempre la a-tonía para la última sílaba. (1932: 12, nik azpimarratua, JH)

Gutti gora behera aldi berean, Larrasquet ere arduratu zen euskal azentuaz (ikus Larrasquet 1928, 1934, 1939). Larrasqueten jarrera guztiz diferentea zen. Hizkuntzalari honek argi eta garbi esaten digu deskribatzen duena ipar-ekialdeko zuberera dela. Larrasqueten lanari esker, badakigu nahiko ongi Zuberoako eskualde horretan erabiltzen duten sistemak nola funtzionatzen duen. Noski, sistema honek ez dauka zerikusirik Azkuek *Morfologian* deskribatzen duenarekin.

Mitxelenaren lana oso garrantzitsua izan zen arlo honetan ordena jartzeko. Ikusi dugunez, bere azentu orokorraren ondoan, Azkuek (1931-32) beste bi azentu mota bereizten ditu, Bortzerrietakoa eta Zuberoakoa. Mitxelenak (1972) hiru sistema hauei beste bat eransten die eta lau azentu tipo bereizten euskaraz:

Tipo I. Tipo prosodiko honetan ez da beti erraza silaba azentuduna identifikatzea. Horrek ez du esan nahi, hala ere, prosodiazko fenomenoek garrantzirik ez dutenik. Guztiz alderantziz, eredu prosodikoak fonologikoki bereizgarriak dira, esanahiak bereizteko erabiltzen dira, gaztelaniaz edo ingelesez gertatzen den bezala. Hitz gehienek tonuzko patroia bat dute singularrean eta beste bat pluralean. Prosodiaren bidez bakarrik bereizten dira, adibidez, ergatibo singularra *gizonak* eta absolutibo/ergatibo plurala *gizonak* (Azkue eta Mitxelenaren grafia erabiliz). Bi eredu ezberdin hauen gauzatzeaz, singularrean hitzaren melodia gutti gorabehera lau dela eta pluralean hitzaren bukaeran beherapen bat dagoela esaten digu Mitxelenak. Hau kasu markatugabea. Zenbait hitzek (hitz markatuek) patroia bera daukate singularrean eta pluralean. Hitz markatuok bukaeran beherapen bat daukate bai pluralean eta bai singularrean.

Tipo honen hedaduraz, bizkaieraz eta gipuzkeraz mintzatzen den eskualde gehienetan (Bizkaian, ia Gipuzkoa osoan eta ondoko eskualde batzutan Nafarroan) orokorra zela suposatzen zuen Mitxelenak.

Tipo II. Hau zubereraren sistema da. Sistema honetan, azentua normalean azkenurreko silaban erortzen da: *gizúna, búüzagía*. Hala ere badira hitz oxitonoak. Bi kasutan, oxitonotasuna morfologikoki baldintzatuta dago: a/Absolutiboan ez ezik, pluralaren beste kasu guztietan azentua azken silaban erortzen da: *gizúnak* absolutiboa, baina *gizunék* ergatiboa, *gizonér* datiboa. b/Erroa /-a/-z bukatzen bada, mugagabea azentua azkenurreko silaban erortzen da, normala den bezala; baina absolutibo singularrean, azken silaban erortzen da: *bi alhába* mugagabea, baina *alhabá* singularra. Azken kasu honetan azentua erregularra da kontrakzioa baino lehen ezartzen bada: /alhabá-a/. Mitxelenak erronkaria ere sartzen du tipo honetan, nahiz eta zenbait diferentzia izan. Dirudienez, erronkariaraz, zubereraz bezala, azentua azkenurreko si-

laban ezartzen zen. Baina erroaren azkenurreko silaban, eta ez hitzarenean: *gizon*a.

Tipo III. Tipo hau Nafarroako eskualde batzuetan erabiltzen da. Azentua absolutibo singularraren azkenurreko silaban ezartzen da ("el acento va en la penúltima del tema determinado", Mitxelena 1976:151): *abrátsa*, *egúne*, *árrije*, *sémeja*, *láñoa*, *órduje* (*á*, *é*, *o*, *u*, irristariak edo erdikontsonanteak dira). Zubereraz ez bezala, azentuak ez dauka inolako garrantzirik hitzen edo kategoria morfologikoen artean bereizteko. Tipo honetan azentu-ezarketa nahiko arau berantkorra dela esan dezakegu. Bokal sekuentziak diptongo bihurtzen dituen araua baino beranduago aplikatzen da azentu-ezarketa:

(9)	/arri-a/	/egun-a/
Diptongizazioa	$\overset{\text{a}}{\underset{\text{a}}{\text{rri}}}$	$\overset{\text{e}}{\underset{\text{u}}{\text{gun}}}$
Azentu-ezarketa	á.rri.a	e.gú.na
(a → e)	á.rri.e	e.gú.ne

Zubereraz, alderantziz, bokal talde hauek silaba ezberdinetan aurkitzen dira azentu-ezarketa aplikatzen denean, goian emandako *biñizagía* adibideak erakusten duen bezala.

Tipo IV. Hau Bidasoako azentua da. Tipo honen hedadura hauxe da: Hondarribia, Irun, Bortzerrieta eta, guttienez, Labaieneraino Nafarroan. Sistema honen arau orokorra azentua bigarren silaban erortzen dela da: *katuári*, *katuákeri* 'katuei' (Hond.). Baina erroa silababakarrekkoa baldin bada, lehendabiziko silaban eroriko da: *árrakeri* 'arrei' (Hond.). Hitz markatu batzuetan ere, azentua lehendabiziko silaban erortzen da: *áurrera*, *átzekua*.

Sailkapen honi buruz esan behar da ez dela zehatzegia ez eta osoa, Mitxelenak berak onartu zuenez (Mitxelena 1976:147, 1985: 566-567). Alde batetik, euskalki guztiak ez dira sailkapenean sartzen. Lapurdi-Behenafarroetako euskalkiak ez dira aipatzen. Arrazoia, garbiri esan, zera da, oraindik inork ez duela eskualde horretako azentua aztertu. Beste aldetik, tipo batzuen barruan sartuta dauden hizkerak ez dira batere homogeneousak, azentuazioaren ikuspuntutik. Hori gertatzen da, argi eta garbi, Mitxelenaren tipo I-ean. Datuak miatzen badira, ez da egia gipuzkera eta bizkaieraren eremuan bakarrik tipo prosodiko bat dagoenik. Egoera askoz aberatsagoa da izan ere, oso sistema ezberdinak aurkitzen bait dira eskualde honetan. Mitxelenak eskualdearen homogeneitatea asumitu zuen, ikerketa handirik egin gabe. Gero aurkitu zuen, adibidez, Oñatin singularra eta plurala ez direla bereizten prosodiaren aldetik (Mitxelena 1976). Noski, Mitxelenak bazekien bere tipo I-ean sartu zituen hizkeren artean diferentziak zeudela; baina diferentzia horiek garrantzi handirik gabeko azalezko fenomenoak zirela uste zuen. Iritzi bateratzaile hori zein neurritan justifikatuta dagoen ez dago batere garbi.

Arazo hori ez da bakarrik gertatzen geografia eta demografiaren aldetik handiena den bere lehenengo tipoan; beste tipoak ere, nahiz eta askoz hobekiago mugatuak izan, azpisistema bat baino gehiago dute beren barnean. Adibidez, Mitxelenak bere laugarren tipoan sartzen duen Hondarribiko euskalkian, azentua ez da erortzen bigarren silaban arau orokorrez, *txistuláriakena*, *kalamártza*, *berberíña*, *atarraméndua*, eta antzeko adibideetan ikus daitekenez (ikus Hualde eta Sagarzazu agertzeke). Egia da Hondarribiko azentu sistemak Mitxelenaren laugarren tipoan sartzen diren beste sis-

temekin badaukala gauza asko amankomunean. Baina badira diferentziak ere. Eta diferentzia hauek handiak edo trikiak diren ezin esan daiteke datuak sakonki aztertu arte. Laugarren tipoaren ezaugarri nagusia azentua bigarren silaban erortzen dela baldin bada, orduan badaude problemak Hondarribiko euskara talde honetan sartzeko.

Txillardegik (1984) Mitxelenaren lau azentu motak bitan biltzen ditu; hots, mendebaldekoa eta ekialdekoa. Mendebaldeko sisteman, azentu unitatearen (hitzaren) bigarren silaban ezartzen da azentua kasu markatugabeen. Ekialdeko sisteman, aldiz, azentua azentu unitatearen azkenurreko silaban ezartzen da normalean. Ez zait iruditzen Txillardegiren sailkapena inolako aurrerapena denik. Hasteko, ez da egia mendebaldeko hizkera guztietan azentua bigarren silaban erortzen denik. Adibide bat ematearren, Getxoko *kuntzurruné* singularrak, eta *kuntzurrunék* pluralak, besterik gabe erakusten dute euskalki honetan azentu kontuetan hitzaren bukaera, eta ez hitzaren hasiera, dela garrantzitsua (ikus Hualde 1989b, eta lan honen hirugarren atala Getxoko euskaraz).

Nire iritziz ahal den bezainbat hizkera prosodiaren aldetik ikertzeak izan behar luke lehenengo urratsa. Datuak ondo ezagutzen ditugunean bakarrik, izango du zentzurik sailkapenak egiteak.

Orain arte oso deskribapen fidagarri gutti agertu direla esan behar da. Agian aipagarriena Basterrecheak (1974-75) Gernikako azentuaz idatzi zuena da. Basterrechearen deskribapen bikaina Azkuerenarekin konparatzen badugu, Mitxelenaren tipo 1-en barnean zer-nolako diferentziak aurkitzen diren ikus dezakegu. Lan honen hirugarren atalean arituko gara horretaz.

Tamalez, Basterrecheak jarratzaile gutti izan du. Hemen Laspiurren (1979) Eibarko azentuaren deskribapena eta Etxebarriaren (1988) Zeberioko euskarari buruzko lan bikaina aipa ditzakegu. Laspiurrek Eibarko azentuari buruzko datu ugari eskeintzen dizkigu baina puntu garrantzitsu batzuk ez daude oso garbi bere deskribapenean. Ematen dizkigun datuen arabera, badirudi ergatiboan *gizónak* singularra eta *gizonak* plurala bereizten direla; baina *basúak* 'basoak, mendiak' bai ergatibo singularra eta bai plurala izan daiteke. Puntu hau argitzeko ez du adibide askorik ematen. Adibide gehienak hitz luzeagoenak dira (*abadiak*, *aberatsak*, *txoridunak*) baina *etxe*, *mendi*, *neska* eta antzeko hitzen deklinabidea falta da. Hutsune hauek penagarriak dira, erro bisilabadunen portaera ongi ezagutu gabe zaila baita datuen azpitik dauden arauak aurkitzen. Gainera, gehienetan azentuaren aldetik kontrastatzen duten formak ematen dizkigu bakarrik. Zer esanik ez, sistema ulertzeko kontrastatzen ez duten formak ere ezagutu behar ditugu.

Etxebarriak bere doktorego tesian Zeberioko mintzairaren deskribapen borobila eskaintzen digu. Tesi honen hamargarren kapituluan hango azentu sistemaren xehetasunak ematen dizkigu. Zehaztasunaren aldetik lan hau Basterrechearenarekin konpara daiteke.

Rotaetxeren (1978a, 1978b) Ondarroako euskararen azentuari buruzko lana, zenbait obserbazio interesgarri eduki arren, puntu batzuetan kontuz irakurtzekoa da. Hasteko, eta nire uste apalean, Rotaetxeren interpretazioa zalantzaragarria da hitz polisilabikoetan. Rotaetxerentzat, *lagúné* (ra) bezelako hitz batean, azentu nagusia bigarren silaban dago. Baina *lagúnák* (eiñ ddau) ergatibo singularra, *lagúnak* (eiñ ddabe) ergatibo pluralari fonologikoki oposatzen dela kontutan hartzen badugu, argi dago singularrean azken silabaren azentua dela hiztunentzat garrantzia duena, eta ez biga-

rrren silaban dagoena. Esan behar da, hala eta guztiz, puntu honetan hutsegitea ulergarria dela, Ondarroako azentua bereziki zaila baita kanpoko entzule batentzat. Gainera bereizketa batzuk galdu egiten dira talde fonikoaren bukaeran (gauza bera gertatzen da Zeberion, ikus Etxebarria 1988). Bigarrenik, Rotaetxek ematen dituen adibide batzuk ez daude ondo transkribituta, edo ez dira Ondarroakoak. Ez dira, behintzat, gaurregun Ondarroan erabiltzen direnak. Adibide bat emateko: *mendíxetá-tik* (Rotaetxe 1978a: 525) guztiz arrotza da nire Ondarroako informatzaileentzat. Kontsultatu ditudan ondarrutarrek *mendíxétátik* (*men*|*díxeta*|*tik*) eman didate behin eta berriz. Nik bildu ditudan datuek Ondarroako sistema gutti gorabehera Lekeition erabiltzen dena dela erakusten dute eta Azkuek aipatzen dituen ezaugarriak ditu.

Salaburuk (1984) kapitulu bat eskaintzen dio Baztango azentuari. Hau ere nahi-ko deskribapen zehatza da. Honi esker badakigu orain Baztango hizkera Mitxelena-ren hirugarren tipoan kokatzen dela. Azentua hitzaren azkenaurreko silaban doa eta ez du balio fonologikorik esanahiak bereizteko: *érxja*, *gizóna*, *gizonarékin*, *gizonarendá-ko*, *hemezortzigarréna*. Hitza kontsonantez edo irrizariz bukatzen bada (hau da, azken silaba itxia bada), azentua azken silaban jartzeko joera dago; baina hau joera bat da bakarrik eta ez arau trinkoa: *bí gízón* edo *bí gízon*.

Hurrengo atalean neuk ikertzeko aukera izan dudan azentu-sistema batzuk aurkeztuko ditut laburki. Helburua antzeko azentu sistemak kontuz aztertzen baditugu teoriaren aldetik guztiz interesgarriak diren diferentziak aurkituko ditugula erakustea izango da.

3. Bizkaiko zenbait azentu sistema

3.1. Gernika

Gernikako sistema prosodikoa doinu-azentu motakoa da. Hitz gehienekin singularra eta mugagabea, alde batetik, eta plurala, beste aldetik, prosodiaren bidez bereizten dira. Absolutibo (nor), ergatibo (nork), datibo (nori), genitibo (noren) eta beste kasuetan, singularrean tonua hitzaren bukaeraino goiko mailan mantentzen da. Pluralean, aldiz, badago beherapen bat. Beherapen hau atzizkia edo atzizkiaren parte bat daukan lehen silaban hasten da. Orduan, absolutibo, ergatibo eta genitibo pluralean azken silabak bakarrik darama beheko tonua. Datibo pluralean, atzizkiak bi silaba hartzen ditu, eta bi silaba horiek beheko tonuan daude. Kasu guztietan, hitzaren lehenengo silabak beheko tonua darama, bigarrenak goikoa baldin badarama. Gero azalduko dudan arrazoiarengatik, goiko tonua daraman azken bokala azentu akutu batez markatzen dut (datu gehiago Hualde 1989a-n ematen dira):

(10) singularra	plurala	mugagabea	
a. absolutiboa (nor)			
<u>gi</u> xoná	<u>gi</u> xó nak	<u>gi</u> xón	'hombre'
<u>gun</u> tzurrúné	<u>gun</u> tzurrú nek	<u>gun</u> tzurrún	'riñón'
<u>nes</u> kié	<u>nés</u> kak	<u>nes</u> ká	'chica'
<u>e</u> tzié	<u>e</u> tzi ek	<u>e</u> tzé	'casa'
<u>men</u> dižé	<u>men</u> dí žek	<u>men</u> dí	'monte'
<u>lu</u> rré	<u>lú</u> rrek	<u>lúr</u>	'tierra'

b. ergatiboa (nork)

gi|xonák
gun|tzurrúnék
nes|kiék
e|tziék
men|dižék
lu|rrék

gi|xónak
gun|tzurrúnék
nés|kak
e|tziék
men|dížek
lú|rrek

gi|xonék
gun|tzurrúnék
nes|kák
e|tzék
men|dík
lu|rrék

c. datiboa (nori)

gi|xonarí
gun|tzurrunerí
nes|kierí
e|tzierí
men|dižerí
lu|rrerí

gi|xónari
gun|tzurrúnéri
nés|kari
e|tziéri
men|dížeri
lú|rleri

gi|xonerí
gun|tzurrunerí
nes|karí
e|tzerí
men|dirí
lu|rrerí

d. genitiboa (noren)

gi|xonán
gun|tzurrúnén
nes|kién
e|tzién
men|dižén
lu|rrén

gi|xónan
gun|tzurrúnén
nés|kan
e|tzién
men|dížen
lú|rren

gi|xonén
gun|tzurrúnén
nes|kán
e|tzen
men|dirén
lu|rrén

Beste ikertzaile batzuei jarraituz (Jacobsen 1972, Michelena 1972), tonu-behera-pena eragiten duten morfemei markatuak deituko diet. Besteak, markatugabeak dira. Azkueren terminologia erabiliz, atzizki markatugabeak tonikoak dira eta markatuak atonoak. Egitura morfologikoetan morfema markatuak maiuskulaz idatziko ditut.

Pluralezko morfema guztiak markatuak dira. Kasu ezlokatibo gehienetan, singularra eta plurala pluralaren atzizkia markatua delako bakarrik bereizten dira, goiko adibideak erakusten duten legez. Kasu lokatiboetan agertzen den /-ATA/ pluralzailea ere markatua da: /mendi-ATA-an/ men|dížetan, /baso-ATA-TIK/ ba|só|atatik, /lurr-ATA-ra/ lú|rretara. Baina morfema markatu guztiak ez dira pluralezkoak. Komitativo singularra markatua da: /gixon-a-GAS/ gi|xoná|gas (plurala: /gixon-AK-GAS/ gi|xón|nakas). Atzizki lokatiboen artean, /-TIK/ ablatiboa markatua da: /mendi-TIK/ men|dí|ttik (kompara ezazue /mendi-ra/ men|diré).

Deribazio atzizkietan, bereizketa lexikal bera aurkitzen dugu, batzuek markatuak dira eta besteak markatugabeak. Adibidez, /-EN/ superlatiboa eta /-GARREN/ markatuak dira: /on-EN-a/ ó|nena, /saspi-GARREN/ sas|pí|garren, /bi-GARREN-a/ bí|garrena. Deribazio atzizki markatuekin, singular eta pluralaren arteko diferentzia galtzen da; bí|garrenak, adibidez, ergatibo singularra edo absolutibo/ergatibo plurala izan daiteke.

Atzizki deribatibo ezmarkatu bezala /-garri/ eta /tasun/ aipa ditzakegu, beste askoren artean: a|rrigarrižé, ar|gittasuné.

Azkenik, badira erro markatuak ere. Hauetariko asko maileguak dira, batez ere gaztelaniazko bisilabaden paroxitonoak: básoa (edalontzia), pórtie, bárkue, píxue ('piso'). Hala ere, antzeko mailegu asko (agian zaharragoak) markatugabeak dira: pixué ('peso'), partié, etab. Eskualde honetako beste mintzaira askotan bezala, káfié markatua da, nahiz eta gaztelaniaz oxitonoa izan. Beste hitz markatu batzuk ez dira maileguak, eta beste mintzaira askotan ere markatuak dira: béstie, lékue, tókize, éurie, átzie. Erron markatua luzeagoa izan daiteke, eta orduan beherapena non gertatzen den ikasi behar da. Toponimo markatuen artean, badago Etzébarri, Bilbo ondoko herri edo auzune baten izena, eta Etzebárrí, Gernika ondoan dagoen baserri baten izena. Badago hirugarren bat: Etzebárrí, Markina aldean dagoen herria; hau markatugabea. Erron markatua baldin bada, singular eta pluralaren arteko kontrastea neutraltzen da: béstieri 'besteari edo beste'. Atzizki markatu eta markatugabeen arteko beste kontraste guztiak ere neutraltzen dira.

Sistemak nola funtzionatzen duen ulertzeko, morfema markatu eta markatugabeen litezkeen konbinaketa guztiak aztertu behar ditugu. Hona hemen adibide batzuk:

(11) /gixon-an-ari/	<u>gi</u> xonan <u>arí</u>	'gizonarenari, al del hombre'
/gixon-an-ARI/	<u>gi</u> xon <u>á</u> nari	'gizonarenei, a los del hombre'
/gixon-AN-ari/	<u>gi</u> xónanari	'gizonenari, al de los hombres'
/gixon-AN-ARI/	<u>gi</u> xónanari	'gizonenei, a los de los hombres'
/BESTE-an-ari/	<u>bés</u> ti <u>nari</u>	'bestearenari, al del otro'
/BESTE-AN-ARI/	<u>bés</u> ti <u>nari</u>	'besteenei, a los de los otros'
/mendi-TIK/	<u>men</u> dí <u>ttik</u>	
/mendi-ra/	<u>men</u> diré	
/LEKU-TIK/	<u>lé</u> ku <u>tik</u>	
/LEKU-ra/	<u>lé</u> kure	
/bi-GARREN-an-tzako/	<u>bí</u> garrenant <u>zako</u>	'bigarrenentzako, para el segundo'
/bi-GARREN-AN-tzako/	<u>bí</u> garrenant <u>zako</u>	'bigarrenentzako, para los segundos'
/guntzurrun-an-tzako/	<u>gun</u> tzurrunent <u>zakó</u>	'para el riñón'
/guntzurrun-AN-tzako/	<u>gun</u> tzurrú <u>nentzako</u>	'para los riñones'

Datuak honela azal ditzakegu:

a/ Prosodiaren aldetik, badira bi morfema mota: morfema markatuak eta markatugabeak. Bereizketa hau lexikala da.

b/ Hitzaren hasieratik lehen morfema markaturaino, silaba guztiak goiko tonua daramate; baina hitzaren lehen silaba ez da eremu honetan sartzen, goiko tonua eraman dezakeen silaba bakarra ez baldin bada. Hau da, silabakarreoetan eta bigarren silaban morfema markatu bat dagoenean ematen zaio bakarrik goiko tonua lehen silabari. Bestela, bigarren silaban hasten da goiko tonuzko eremua.

Lehen morfema markatutik hitzaren bukaeraraino beheko tonu bat dago. Morfema guztiak markatugabeak baldin badira, goiko tonuzko eremua azken silabaraino heltzen da.

Japoneraren doinu-azentuaren kasuan egin genuen bezala, Gernikako euskararen melodien azpitik azentu sistema bat aurki dezakegu.

Hitzaren eremuan, goiko tonua daraman azken silaba azentu marka batez seinalatu dugu. Fonologiaren aldetik, silaba hori non dagoen da jakin behar dugun gauza bakarra. Hori badakigu, beste silaben tonua, besterik gabe, ezagut dezakegu. Orduan, goiko tonua duen azken silabak prominentzia prosodikoa daukala esan dezakegu. Prominentzia hori ez da abstraktua bakarrik. Gehienetan, silaba horren tonua aurreko silabena baino apur bat altuagoa da, tresnekin baieztatu daitekeenez.

Azentua seinalatu ditugun silabetan dagoela onartzen baldin badugu, honako orokortasunak agertzen dira:

(12) Gernikako azentu sistema

1/ Atzizki batzuk, markatuak deitu ditugunak, aurreazentuatzailerak dira. Hau da, aurreko silabari ematen diote azentua.

2/ Badira erro batzuk (erro markatuak), azentu lexikoa silaba jakin batean daramatenak.

3/ Azentu-ezarketa araua: a/Azentuaren kokagunea lehen morfema markatuak erabakitzen du. b/Morfema markaturik ez badago, azentua hitzaren azken silaban jartzen da.

Adibide batzuk azter ditzagun: /gixon-ARI/, datibo plurala, hitzean badago atzizki markatu bat. Atzizki markatuak aurreazentuatzailerak direnez gero, azentu-ezarketa arauak *gixonari* emango digu. /mendi-ATA-TIK/ edo /LÉKU-ATA-TIK/ hartzen badugu, morfema markatu bat baino gehiago izango ditugu. Kasu hauetan, azentu-ezarketa arauak lehen atzizki markatuak hitzaren azentua erabakitzen duela esaten digu. /mendi-ATA-TIK/ adibidean, /ATA/ atzizkiak ipiniko du azentua aurreko silaban: *mendi^zetatik*. /LÉKU-ATA-TIK/ adibidean, lehen morfema markatua erroa da. Erro honek azentua hiztegian markatuta daukanez gero, hitzaren azentuketa *léku^zetatik* izango da (analisi zehatzago baterako ikus Hualde 1991).

Honela definituta, azentu sistema hau ez da batere arraroa. Hain zuzen ere, turkierak nahiko antzekoa den sistema bat dauka (ikus Halle eta Vergnaud 1987: 53-55). Hala ere, aurreratutako arauak ez digu irudi osoa ematen. Hau doinu-azentuzko sistema bat da. Honek esan nahi du silaba azentudunaren kokagunea ezagutuz gero, melodia bat ezarri behar dugula. Japoneraren analisisian proposatu genuen bezala, HL melodia silaba azentudunarekin lerratzen da. H tonua silaba azentudunari lotzen zaio eta handik hedatzen da ezkerraldera. L tonua azentuaren eskuineko silabei lotzen zaie. Orobat Japoneraren kasuan legez, lehenengo silaban sartzen den muga-tonu bat dago (silaba hau goiko tonu bati ez badago lotua):



Lehen adibidean (*guntzurrúné*), H tonuaren ondoko L tonua azken silabari lotu diogu. Arrazoia hitza eten baten aurrean badago, silaba horretan ingurune bat entzungo dela da. Beste zenbait testuingurutan ingurunea erraz daiteke.

3.2. Lekeitio

Lekeitio, Gernikan bezala, badago lexiko banaketa bat morfema markatu eta markatugabeen artean. Jeneralean, Gernikako euskaraz markatuak diren morfemak (erroak, flexiozko eta deribaziozko atzizkiak), Lekeitio ere markatuak dira. Hala eta guztiz, morfema markatuen zerrendak ez dira berdin berdinak bi mintzairetan.

Beste aldetik, hala ere, morfema markatuek hitzaren prosodian daukaten efektua guztiz desberdina da bi dialektoetan. Ikusi genuenez, Gernikan atzizki markatuak aurrezentuatzailak dira eta lehen morfema markatuak determinatzen du tonu beharpenaren kokagunea. Lekeitio, aldiz, hitzaren azken silaba bakarrik egon daiteke beheko tonuan. Hitzak morfema markatu bat edo gehiago baldin badu, azken silaba beheko tonuan egongo da, morfema markatua non dagoen kontutan hartu gabe (hau da, azentua azkenaurreko silaban eroriko da). Azkueren hitzetan esateko, "la a-tonía corre de la sílaba (de suyo átona) hasta el final del vocablo" (1932: 4). Morfema guztiak markatugabeak badira, ez da beharpenik egongo (azentua azken silaban kokatuko da). Gernikako eta Lekeitioko sistemen artean dauden diferentziak ikusteko, begira ditzagun goian emandako adibideak Lekeitio nola ahoskatzen diren. Beste adibide batzuk ere ematen dira:

(14) /gixon-en-ari/	gi xonená ri	'gizonarenari, al del hombre'
/gixon-en-ARI/	gi xonená ri	'gizonarenei, a los del hombre'
/gixon-EN-ari/	gi xonená ri	'gizonenari, al de los hombres'
/gixon-EN-ARI/	gi xonená ri	'gizonenei, a los de los hombres'
/BESTE-en-ari/	bes tiená ri	'bestearenari, al del otro'
/BESTE-EN-ARI/	bes tiená ri	'besteenei, a los de los otros'
/mendi-TIK/	men dí txik	
/LEKU/	le ku	
/LEKU-TIK/	le kú tik	
/LEKU-ra/	le kú ra	
/LEKU-ra-ÑO/	le kurá ño	
/mendi-ra/	men dirá	
/jon-en-tzako/	jo nentzakó	'para Jon'
/JONE-en-tzako/	jo nentzá ko	'para Jone'
/bi-GARREN-en-tzako/	bi garrenentzá ko	'bigarrenentzako, para el segundo'
/bi-GARREN-EN-tzako/	bi garrenentzá ko	'bigarrenentzako, para los segundos'
/guntzurrun-en-tzako/	gun tzurruntzakó	'para el riñón'
/guntzurrun-EN-tzako/	gun tzurruntzá ko	'para los riñones'
/BILBO-n/	Bil bon	
/BILBO-ra/	bil bó ra	
/BILBO-TIK/	bil lób tik	

Adibideok ikusita, garbi dago Lekeitioko azentu-ezarpen araua ez dela Gernikakoa. Leketioko araua hauxe da:

(15) Azentu-ezarpena

a. Morfema markaturik baldin badago azentu-unitatean, ezarri azentua azkenau-
rreko silaban.

b. Morfema guztiak markatugabeak badira, ezarri azentua azken silaban.

Azentuaren kokagunea finkatu eta gero, melodiaren ezarketa Gernikan bezala
suertatzen da.

3.3. Getxo

Getxoko sistema prosodikoa Gernikako sistemaren aldaera bat dela esan dezake-
gu. Fonetikaren aldetik, silaba azentuduna oso ondo bereizten da beste silabetatik,
Gernikan edo Lekeition baino askoz errazago. Getxon tonu igoera garbia dago hitza-
ren hasieratik silaba azentudunera. Gehienetan, azentu ereduak bat datoz Gerni-
kakoekin: *kuntzurruné*, *kuntzurrunék* plurala, *gisonaná* 'el del hombre', *gisonának* 'los
del hombre', *gisonanak* 'los de los hombres', *lagunerí* 'al amigo', *lagúneri* 'a los amigos'
(ikus Hualde 1989b, Hualde eta Bilbao 1991).

Diferentziak bokalez amaitzen diren erroekin agertzen dira. Getxon, bi bokal ja-
rriaian daudenean, bigarrena galdu egiten da. Horrek hauxe esan nahi du: absolutibo
singularrean, esate baterako, /gison-a/ *gisoná*, /txakurr-a/ *txakurré* eta erroa kontso-
nantez bukatzen diren beste hitz guztietan, /-a/ determinatzailea agertuko dela.
Erroa bokalez bukatzen bada, berriz, /-a/ desagertuko da: /etxe-a/ *etzé*, /mendi-a/ *men-
dí*, /buru-a/ *burú*, /baso-a/ *basó*, /neska-a/ *neská*. Begira dezagun /etze/ eta /iturri/ hi-
tzen deklinabidea:

(16) singularra	plurala	mugagabea
etzé	étzek	etzé
etzé ^k	étzek	etzé ^k
etzerí	étzeri	etzerí
etzén	étzen	etzén
etzéntzako	étzéntzako	etzéntzako
etzéas	étzekas	etzéas
		etzerík
etzén	étzetan	etzetán
etzerá	étzetara	etzetará
etzerañó	étzeterañó	etzeterañó
etzerántza	étzeterantza	etzeterántza
etzéti(k)	étzetati(k)	etzetátí(k)
etzekó	étzetako	etzetakó
iturrí	itúrrik	iturrí
iturrí ^k	itúrrik	iturrí ^k
iturrirí	itúrriri	iturrirí
iturrín	itúrrin	iturrín
iturrintzako	itúrrintzako	iturrintzako
iturries	itúrrikes	iturries

iturрін	itúrriten	iturrirík
iturriré	itúrriterá	iturritén
iturrirañó	itúrriterañó	iturriterá
iturrirántza	itúrriterantzá	iturriterañó
iturritik	itúrritetik	iturriterántza
iturrikó	itúrriteko	iturritetik
		iturritekó

Singularraren eta mugagabearen formak Gernikan (eta Lekeition) bezala agitzen dira. Melodia kontuak eta bokalen tratamendua albora uzten badugu, ez dago sorpresa handirik singularraren azentuketan. Atzizki batzuekin badaude diferentziak. Adibidez, /-tzako/ atzizkia markatua da Getxon, Gernikan eta Lekeition ez bezala; edo /-ño/, Lekeition markatua dena, ez da markatua Getxon; baina horiek diferentzia txikiak dira eta ez dute sistema aldatzen. Pluralean, hala ere, diferentzia sistematikoa bat aurkitzen dugu. Konpara itzazue, adibidez, Getxoko *étzeri* eta Gernikako *etzíeri*; *étzetara* eta *etzíetara*; *itúrritetik* eta *iturriřzetatik*. Getxoko pluralezko forma guztien azentuketa azaltzen duen araua hauxe da: absolutibo plurala hartuz, ezarri azentua azkenurreko silaban. Jeneralizazio hau nola formaliza beste kontu bat da, baina datu guztiak sartzen dira jeneralizazioan (noski erro markatuak alde batera utziz).

3.4. Laburpena

Atal honetan Bizkaiko hiru sistema prosodiko aztertu ditugu. Hirurok Mitxelearen lehen azentu tipoa sartzen dira. Antzeko datuen azpitik zein neurritan arau sistema ezberdinak aurkitzen diren erakustea izan da helburua. Sistema hauek amankomunean dauzkaten ezaugarriak azpimarratzea garrantzitsua da; batez ere diakroniaren aldetik. Baina analisi sinkronikoan, hizkera bakoitza sistema asketzat hartu beharra dago. Hau egiten badugu, ikerketa linguistikoaren enparaduko arlo askotan bezala, sarritan antzeko dialektoek fonologiaren antolakuntzan diferentzia nahiko handi eta interesgarriak dauzkatela aurkituko dugu.

Aipamenak

- Altube, S., 1934, *Observaciones al Tratado de "Morfología Vasca" de Don R. M. de Azkue*. Bermeo: Gaubeka. [Berrargitaratuta (1969) in Azkue, R. M., *Morfología Vasca*. Bilbao: LGEV, 3. lib.].
- Azkue, R. M., 1923, *Morfología vasca*. [Berrargitaratuta (1969) Bilbao: LGEV, 3 lib.].
- , 1931, "Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos." *Euskera* 4, 282-318 (1. zatia).
- , 1932, "Del acento tónico vasco en algunos desus dialectos." *Euskera* 6, 3-50 (2. zatia).
- Bailey, L. (1988) "A Non-linear Analysis of Pitch Accent in Swedish." *Lingua* 75, 103-124.
- Basterrechea, J., 1974, "Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica." *FLV* 18, 353-393 (1. zatia).
- , 1975, "Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica." *FLV* 21, 289-338 (2. zatia).

- Bailey, L. (1988) "A Non-linear Analysis of Pitch Accent in Swedish." *Lingua* 75, 103-124.
- Basterrechea, J., 1974, "Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica." *FLV* 18, 353-393 (1. zatia).
- , 1975, "Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica." *FLV* 21, 289-338 (2. zatia).
- Etxebarria, J. M., 1988, *Zeberio-baraneko euskararen azterketa etno-linguiskoa*. Doktorego tesia, Deustuko Unibertsitatea.
- Gårding, E., 1977 "The Importance of Turning Points for the Pitch Patterns of Swedish Accents." In Hyman, L. (ed.) *Studies in Stress and Accent* (SCOPII 4). Univ. of Southern California, Los Angeles.
- Goldsmith, J., 1976, *Autosegmental Phonology*. Doktorego tesia, MIT. Indiana University Linguistics Club-ek banatua, Bloomington, Indiana.
- , 1990, *Autosegmental and Metrical Phonology*. Oxford: Blackwell.
- Halle, M. eta J.-R. Vergnaud, 1987, *An Essay on stress*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Haraguchi, S., 1977, *The Tone Pattern of Japanese: An Autosegmental Theory of Tonology*. Tokyo: Kaitakusha.
- Harris, J. (agertzeko) "With Respect to Metrical Constituents in Spanish". In Campos, H. eta F. Martínez-Gil, ed., *Current Studies in Spanish Linguistics*. Washington, DC: Georgetown University Press. 1991.
- Hualde, J. I., 1989a, "Acentos vizcaínos." *ASJU* 23.1, 275-325.
- , 1989b, "Otro acento vizcaíno: Getxo." *ASJU* 23.3, 809-817.
- , 1991, "A Metrical Analysis of Western Basque Pitch Accent". Eskuizkribua, University of Illinois.
- , eta X. Bilbao (1991) "The Prosodic System of the Basque Dialect of Getxo: A Metrical Analysis". Eskuizkribua, University of Illinois eta University of Iowa.
- Hualde, J. I eta Tx. Sagarzazu (agertzeke) "Acentos del Bidasoa: Hondarribia." *ASJU*.
- Huffman, M., 1987, "Tone and Syntax in Agwagwune." 18. Conference on African Linguistics bilera aurkeztuta.
- Inkelas, Sh. eta D. Zec, 1988, "Serbo-Croatian Pitch Accent." *Lg*, 64, 227-48.
- Jacobsen, W., 1972, "Nominative-Ergative Syncretism in Basque." *ASJU* 6, 67-109.
- Laspiur, I., 1979, "Azentu diakritikoa Eibarko euskaran." *Euskera* 24, 175-268.
- Lehiste, I., 1970, *Suprasegmentals*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- , eta P. Ivic (1986) *Word and Sentence Prosody in Serbocroatian*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- McCawley, J., 1977, "Accent in Japanese." In Hyman, L. (ed) *Studies in Stress and Accent* (SCOPII 4). Univ. of Southern California, Los Angeles.
- Michelena, L., 1972, "A Note on Old Labourdin Accentuation." *ASJU* 6, 110-120. [Berrargitaratua (1987) in *Palabras y textos*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea, 235-244.]
- , 1976, "Acentuación alto-navarra." *FLV* 23, 147-162. [Berrargitaratua (1987) in *Palabras y textos*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea, 245-260.]
- , 1985, *Fonética histórica vasca*, "ASJU-ren gehigarriak" 9, 3. arg. Donostia: Gipuzkoako Aldundia.
- Nespor, M. eta I. Vogel, 1986, *Prosodic Phonology*. Dordrecht: Foris.
- Pierrehumbert, J., 1980, *The Phonology and Phonetics of English Intonation* Doktorego Tesia, MIT.
- , eta M. Beckman, 1988, *Japanese Tone Structure*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Roca, I., 1986, "Secondary Stress and Metrical Rhythm." *Phonology Yearbook* 3, 341-370.
- Rotaeixe, K., 1978a, *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*. Durango: L. Zugaza.
- , 1978b, "L'accent Basque: Observations et hypothèses". *La Linguistique*, 14, 55-77.
- Salaburu, P., 1983, *Arau Fonologikoak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Txillardegi, 1984, *Euskal Azentuaz*. Donostia: Elkar.